

Dopajea eta alpinismoa

ZIKLISMOA dela eta, dopajea modan dago kirol munduan. Baina ez da ziklismoaren asuntua soilik eta ez da gaur sortu den gauza ere. Dopajea aspaldiko fenomeno da eta, nolabait esateko, azken urteotan bizitza-zientzei buruzko ezagumenduan gertatu den aurrerakada izugarriaren parte bilakatu da. Dopajearen asuntuak alpinismoaren alorrera ere egin du salto eta bere islada du web, foro, chat eta blogetan. Ba al du zentzurik dopajearen kontrako kontrolei buruz hitzegiteak alpinismoaren munduan?

Ikus dezagun. Kirolari dagokionez, dopajearen kontrako kontrola lehiaketaren munduan sortzen da. Kontrol honen helburua da laguntza artifizialen bitartez drogatzen diren kirolariak, beren osasuna arriskuan jarri gainerako lehiakideekiko abantaila konparatiboak ezarriko dituzten errendimendu-ezaugarri apartekoak lortu ditzaten ekiditea. Beraz, beren mugak zehaztu behar diren bi puntu daude: zer diren laguntza artifizialak eta zenbateraino diren kaltegarriak osasunerako.

Debatea aurrean dugu. Oinarritzat hartuta dopajea funtsean txarra dela -eta, beraz, ekidin egin beharko da- eta mugitzen garen eremu honetan aurrerabideak abiadura esponenzialean gertatzen direla, ebazpidea izan da dopajea debekatutako sustantzia eta metodoen zerrenda baten objektibatzea eta debekuen katalogoa eguneratuta mantentzeko ikertzen jarraitzea.

Alpinismoak, biltzen dituen jardueren konplexutasunagatik, bere barnean lehiaketa-modalitateak ere hartzen ditu, olinpikoak ez badira ere, oraindik, batez ere kirol eskalada eta baita mendi-eskia eta izotz-eskalada ere. Arlo horietan ez dago zalantzarik: egoera, gainerako lehiaketa-kirolena bera da, xakea barne. Baina, horretaz aparte, badaude lehiaketak antolatzen diren beste arlo batzuk ere, adibidez mendi-lasterketak eta orienteering delakoa.

Erantzukizuna oraindik urrutiago doa. Lehiaketa tranpak gertatzen dira batez ere atzetik dirua izaten delako, sariak edo normalean komertzialak

diru babesak kasu. Eta lehiaketarik gabeko alpinismoan ere gertatzen dira maiz interes-borrokak, babes komertzialengatik, adibidez, espedizioen munduan. Eta ez nabili hitzegiten beste debate horri buruz, hots, altituden errendimendua hobetzeko erabiltzen den oxigeno artifiziala dopajea kontsideratu behar denentz. Halaxe da, oxigenoak errendimendua hobetzen du, baina ez da arriskugarria osasunerako, baizik eta guttiz alderantziz, eta beraz oso eztabaidagarria izango litzateke dopatzeko metodo bezala kontsideratzea. Bestelako asuntua da emaitzen balorazioa: gaur egun, zortzimilako nagusiei dagokionez, igoeren zerrenda bi daude -oxigenoaren laguntzaz eta oxigenorik gabe- desberdinez, arroka-eskaladan egiten den bezala, laguntza artifizial gehiago edo gutxiago erabiltzen den arabera.

Asuntua bere apogeoan dago alpinismo egituratuaren maila gorenean: UIAA delakoan, hau da, Alpinismoaren Nazioarteko Federazio baten antza duen erakunde horretan. 2003 urtean jadanik Batzar Orokorrak bere iritzia eman zuen, onartuz dopajearen kontrako arautegiaren hastapenak. Baina gauzak aldatu egin dira. UNESCOk Parisen 2005 urtean izenpetu zuen Kiroleko Dopajearen kontrako Nazioarteko Konbentzioa indarrean sartu da 2007 urteko otsailaren 1ean. Horrek esan nahi du munduko gobernu guztiek adostu dutela AMA-WADA delakoaren Dopajearen kontrako Arautegi Mundiala dagozkien legislazioetara eranstea. Orain Estatuak dira derrigortzen dutenak eta beraz eragina izango du kirol federazio guztietan eta Kirolarekin erlazioaturik dauden pertsona guztiengan.

Eta horrek guztiorrek bere barnean sartzen du alpinismoa, federazioa, klubak eta mendizaleak. Eta ohitu egin beharko gara debekatutako sustantzia eta metodoak murriztera, dopajearen kontrako kontrolak erraztera, arauak bortxatzen dituztenei diru-laguntzarik ez ematera eta dopajearen kontrako borrokari buruzko programa hezgarriak bultzatzera.

El dopaje y el alpinismo

EL tema del dopaje en el deporte está de moda a cuenta del ciclismo. Pero no es sólo en el ciclismo ni es cosa de hoy. Hace mucho que el fenómeno existe y, en cierto sentido, forma parte del espectacular avance en el conocimiento de las ciencias de la vida en los últimos años. El tema ha saltado también al alpinismo y se refleja en webs, foros, chats y blogs. ¿Tiene sentido hablar de control antidoping en el mundo del alpinismo?

Veamos. El control antidopaje en el deporte nace en el mundo de la competición. Se trata de evitar que por medio de ayudas artificiales los deportistas que se drogan adquieran características extraordinarias de rendimiento que les coloque en situación de ventaja comparativa respecto al resto de sus competidores, poniendo en riesgo su salud. Se trata pues de dos puntos cuyos límites hay que precisar: qué son ayudas artificiales y hasta qué punto son perjudiciales para la salud.

El debate está servido. Partiendo de que el dopaje es intrínsecamente malo, por lo que debe evitarse, y que nos movemos en un terreno en el que se avanza a velocidades exponenciales, la solución ha sido objetivar el dopaje entorno a una lista de sustancias y métodos prohibidos y seguir investigando para mantener actualizado el catálogo de prohibiciones.

El alpinismo, por la complejidad de actividades que contempla, engloba también modalidades de competición, aunque no sean olímpicas, todavía, sobre todo en la escalada deportiva y también el esquí de travesía y la escalada en hielo. En esos campos no hay duda: la situación es la misma que para el resto de deportes de competición, incluido el ajedrez. Pero además hay otras áreas en las que se organizan competiciones, como son las carreras de montaña o el orienteering.

Incluso la responsabilidad va más lejos. La competición es susceptible de trampa sobre todo porque hay dinero detrás, en forma de premios y de

patrocinios, comerciales fundamentalmente. Y en el alpinismo "no competitivo" también se producen a menudo conflictos de intereses, por patrocinios, por ejemplo, en el mundo de las expediciones. Y no estoy hablando del otro debate, sobre si el oxígeno artificial para mejorar el rendimiento en la altitud debe considerarse dopaje. Efectivamente el oxígeno mejora el rendimiento, pero no es peligroso para la salud, sino todo lo contrario, por lo que sería muy cuestionable su consideración como método de dopaje. Otro asunto es la validación de resultados: hoy en día hay dos listado de ascensiones a los ochomiles mayores -con y sin oxígeno- diferenciando, igual se hace en la escalada en roca según se utilicen más o menos ayudas artificiales.

El tema está en pleno apogeo en el nivel más alto del alpinismo estructurado: la UIAA, esa especie de Federación Internacional de Alpinismo. Ya en el año 2003 se pronunció la Asamblea General, aceptando los principios del código antidopaje. Pero las cosas han cambiado. La Convención Internacional contra el Dopaje en el Deporte que suscribió la UNESCO en París en 2005, ha entrado en vigor el 1 de febrero de 2007. Eso quiere decir que prácticamente todos los gobiernos del mundo han acordado incorporar a sus respectivas legislaciones el Código Mundial Antidopaje de la WADA-AMA. Ahora son los Estados los que obligan y por lo tanto afectará a todas las federaciones deportivas y a todas las personas relacionadas con el Deporte.

Y eso incluye también al deporte del alpinismo, federaciones, clubs y montañeros. Y tendremos que acostumbrarnos a restringir el uso de sustancias o métodos prohibidos, a facilitar controles antidopaje, a suspender el apoyo financiero a los que violen las normas y a apoyar los programas educativos sobre la lucha contra el dopaje.